

GALDERAK

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

A. Zeintzuk dira zure ustez hondakinen sorreran gehien eragiten duten faktoreak?

- Kontsumoa. Kontsumo ohitura ez arduratsuak.
- Fabrikazioa.
- Hazkunde ekonomikoa. Hazkunde ekonomikoaren gorakada.
- Produktuen indibidualizazioa.
- Herritarren erosotasuna.
- Gehiegizko ontziratzea.
- Papera gehiegi erabiltzea. Gutxi berrerabiltzea.
- Kontsumo eredu; oso garrantzitsua da bizi estiloa.
- Jarduera ekonomikoa ↑ Industria ↑ Merkataritza ↑ (eta alderantziz)
- Hondakinak tratatzeagatik ordaindu behar izateak atzera botatzen du.
- Industrian/merkataritzan bereizteko modua ez ezagutzea: prestatu eta informatu.
- Bizimodua (erantzun generikoagoa da).
- Produktuaren diseinua: beharrezkoak ez diren ontziak.
- Herritarrek birziklatzea "mesede" gisa ulertzen dute. Administrazioaren lan bat egiten ari direla pentsatzen dute batzuek.
- Zalantzan jartzen da birziklatzen dena amaierako norakora iristen ote den.
- Araudia aplikatzeak eragin handia du.
- Informazio fluxuak hobetzea. Informazio falta. Herritarrei, sektore kolektiboari, informazioa helaraztea.
- Turismoa eta zerbitzu hiriaren izaera areagotzea.
- Zerbitzuak. Merkataritza. Zerbitzu hiriak. Jarduera ekonomikoek eragin oso handia dute hondakinak sortzeari dagokionez.

B. Uste duzu asmatzen ari dela hondakinen hierarkiaren ezarpenean, beren sorrera murriztu eta baliabide gisa aprobetxatzeko?

- Ordena zuzena da, baina errealitate izatetik urrun dago. Berrerabiltzea gutxi balioesten da eta dematerializazioa nabarmendu behar da.
- Aldatu egin beharko litzateke.
- Hierarkia zuzena da.
- Aplikazioak asko hobetu behar du.
 1. Prebentzioa oso garrantzitsua da eta erosketa adimentsua azpimarratu behar da.
- Berrerabiltzea, konpontzea... gutxi balioesten da gizartean. Berrerabiltzeko prestatzean lan egin behar da.
- Materialen erabilera murriztea.
- Produktuaren diseinuan jarduten ari gara, ondoren birziklatu/berrerabili ahal izan dadin.
- Adierazitako ordena egokia dela eztabaidatuz gero: kontrolatu ezin diren faktore gehiegik hartzen dute parte "prebentzioan". Oso lotuta dago kontzientziarioekin.

- Bestalde, planteatzen da prebentzioa abiapuntua izan daitekeela, fabrikazioari ekin aurretik hobe delako pentsatzen hastea zer baliabiderek fabrikatu behar den. Produktuaren sorkuntzatik bertatik ondorengo birziklatzea planteatzen da. Fabrikazio prozesuko keinu txikiek emaitza handiak izan ditzakete.
- Hondakinen hierarkia.
- Berrerabiltzea azpimarratzea.
- Prebentzioa. Erosketa ontzi gutxiagorekin egitean.
- Berrerabiltzea. Murriztu egin da Emausek jasotakoaren arabera. ??? Berrerabiltzearen batez bestekoa: % 78
- Berrerabiltzeko sentsibilizazio kanpainak; asko kostatzen da sentsibilizatzea Udaletik.
- Pixoihalak.
- Ur pitxerrak.
- Edalontziak.
- Jaso da gehiago lan egin behar dela kontzientziazioan eta ohitura aldatetan, prebentzioari eta berrerabiltzeari dagokionez.

C. Ados zaude hondakinen sektoreari lotutako negutegi efektuko gas isurketen murriztean potentzial garrantzitsua dagoela? Aipatu azpieroemu zehatzak.

- Garraioa.
- Birziklatzea.
- Analogia berriak ikertzea gaur egun birziklatu ezin daitezkeen zatietarako.
- Baiezkoa.
- Ez soilik errefusa.
- Biohondakinen tratamendua/ontziak tratatzeko fabrikak...

Biometanizazioa → Zubieta.

D. Zure aktuazio-eremuan dauden emisio-bolumena –hondakinen sorrerari eta kudeaketari dagokionaz ezagutzen duzu?

- Ez, ez dago barneratuta.
- Oro har, ez.
- HUD. CO2 aztarna kalkulatu da.
- FCCn lanean ari da.
- Herritarrek informazio gutxi dute.
- Ez, ez da ezagutzen inondik inora.
- Kuantifikatzea bera zaila da.
- Garraioa da emisioek garrantzia handiena duten eremuetako bat.
- Informazioa - desinformazioa.
- Bai. Karbono aztarna.